

IRURAKO UDALAK HAUR ETA NERABEEN AISIALDI ZEIN HEZITZAILEAREN EKINTZAK BURUTZEKO COVID-19AREN PREBENTZIO ETA KONTROLERAKO HARTUKO DITUEN NEURRIAK ETA EZARRIKO DITUEN PROTOKOLOAK

Dokumentu honetan jasotzen dena Eusko Jaurlaritzak 2020ko ekainaren 3an argitaratutako aisialdi hezitzailearen ekintzak burutzeko leuntze planaren zirriborroan oinarritzen da. Behin betikoa, dokumentu hau egiten denean (2020ko ekainak 6), argitaratzeko dago.

Aisialdiko jarduera guztiei aplika daitekeen araubide amankomunaren proposamena:

- Administrazio guztiek osasun-ministerioak unean-unean onartutako araudi erregulatzailea bete beharko dute, baita ere erkidego autonomo bakoitzeko araudia.
- Haur eta nerabeentzako hezkuntza-aisialdiko jarduerak antolatzen dituzten erakundeek osasun-larrialdiko testuingurura egokitzeko plan bat aurkeztuko dute.
- Babes eta higie-neurriak (10 hurreko taldeak gehienez eta espazio aldetik, erabiliko den gelaren tamainak ahalbidetuko balu, taldearen kopuruan handitzea posible izango litzake. Edonola ere, inoiz ez dira gaindituko 15eko taldeak, begiraleak barne).
- Ekipamenduak higienizatuta mantentzeko oinarriak.

HAUR ETA NERABEEN HEZKUNTZA AISIALDIKO JARDUERAK COVID 19 DELAKORA EGOKITZEKO PROTOKOLOA. ZERBITZUKO ARRETA ZUZENERAKO NEURRIAK

1. Transmisioaren kontrola eta prebentzioa.

- COVID-19 kutsatzailearen sintomatologia hezitzaile, partaide eta hauen guraso edo tutoreen eskura jarri (sintomak check zerrenda, ikus 1 eranskina).
- Parte-hartzaileek eta haien legezko tutoreek COVID-19ren aurrean duten egoera partikularraren ardura hartu beharko dute; hala, baten batek COVID-19rekin lotutako sintomatologia badu, ez da joango eta bere jardueraren arduradunarekin harremanetan jarriko da (koordinatzailearekin edo hezitzailearekin).
- Jardueraren arduradunek jardueraren segurtasuna zainduko dute, instalazioetara sartzean osasun-adierazpena eginez eta ezarritako segurtasun-protokolo eta -arau guztiak behar bezala betez.
- Mezuak eta kartelak indartu egingo dira, segurtasun portaera eta distantzia, higie-neurriak eta abar gogoraraziz.
- Une oro, segurtasun neurriak betetzen direla bermatzen duen pertsona bat egongo da.

2. Nahitaezko higie-neurri eta prebentzio neurri pertsonalak betetzea.

- Pertsona guztiek (hezitzaileak eta erabiltzaileak) jardueraren lekuan eta leku komunetan (sarrerak, komunak, etab.) ura, xaboa eta eskuak lehertzeko papera beti eskura izatea ziurtatuko da, bai eta Osasun Ministerioak baimendutako eta erregistratutako gel hidroalkoholikoak edo desinfektatzaileak ere, eskuak garbitzeko.

- Kasu guztietan, segurtasun protokoloak beteko direla bermatuko da (nahitaezko higiene eta prebentzio neurri pertsonalak).
- Betetzen ez bada, diziplina neurrien proposamen argia egingo da, eta erabiltzaile edo partaideari ekintzatik kanpo dagoela adieraziko zaio.

3. Arrisku eta desabantaila sozialeko taldeen babesa.

- Arreta berezia jarriko zaie parte hartzeko aukerak murriztuta dituzten kolektiboari (arrisku kolektiboak, gizarte desabantailako egoeran dauden kolektiboak, dibertsitate funtzionala edo intelektuala duten pertsonak), laguntzako begirale gehiago sartuz.

4. Ekintzetan izena ematea.

- Izen-emate epea ekainaren 12tik 15era bitarte zabalduko da. Matrikulazio orria kultura bulegoan edo www.irura.eus web orrialdean eskuragarri egongo da. Bete ostean, kultura bulegoan utzi beharko da ("GOIZA PASA 2020" zerbitzurako izen eman zutenek, ez dute izen-emate berria egin beharrik eta ekainaren 12tik 15era astez aldatzeko edota aurrez aukeratutako asteak bertan behera uzteko aukera izango dute, baina NAHITAEZKOA da aurrez egindako matrikulazioaren baieztapena edo ezeztapena jakinaraztea 688 82 72 06 mugikorrera WhatsApp mezua bidaliz. Haurren kasuan ez bezala, nerabe guztiek berriz bete beharko dute matrikulazio orria).

5. Aurrez aurreko jardueren egokitzapena eta berrantolaketa.

- Jarduerak espazio irekietan egitea lehenetsiko da.
- Sarrera-irteera garaian, talde bakoitzak bere topalekua edo bilgunea izango du. Talde bakoitzaren bilgune hau kalean izango da eta beti leku berdinean. Taldeen tamaina, ordutegiak eta jarduerak planifikatuko dira, prebentzio neurriak eta pertsonen arteko distantzia soziala bete ahal izateko (taldekatzeari dagokionez aurrez aipatutako kopuruetara mugatuko da).
- Etengabeko kontaktu fisikoa eragiten duten jarduerak saihestuko dira. Segurtasun-tartea mantenduz egin daitezkeen ekintzak egingo dira.
- Gazteen aisialdi hezitzaileko jarduerak nahitaez inplikatzeko parte-hartzaileen arteko harremana, nahiz eta hori muga daitezkeen. Horregatik, ahal den neurrian, pertsonen arteko 2 metroko segurtasun tartea errespetatuko da; maskarak erabiliko dira, osasun agintarien indarreko gomendioak ezarritako baldintzetan, eta bereziki maskaren erabilera leku itxietan izango da garrantzitsua eta leku irekietan segurtasun tartea mantendu ezin denean (6 urtetik beharagoentzat ez da derrigorrezkoa baina, bai komenigarria).
- Hamaiketakoak eta bazkariak: arau orokor gisa eta fase bakoitzaren arabera, parte-hartzaile bakoitzak bere jatekoa eraman ahal izango du jarduerara, beste pertsona batzuekin partekatu gabe.
- Eguraldi txarra egiten duenean soilik, erabiliko dira espazio itxiak, hauek mugatuak eta markatuak egongo dira segurtasun tartea mantentzen saiatuz. Espazio itxi hauek etengabe aireztatuak izango dira.
- Kanpoko ekintzetan hezitzaileen ardura izango da pilaketak ekidite aldera, herriko beste ekintzen berri izatea.

6. Segurtasun eta higie arduraduna.

- Arreta zuzena eskaintzen den aldiro hezitzaileetako bat (batzuetan bat baino gehiago izan litezke, talde bakoitzeko hezitzailea adibidez) segurtasun eta higie arduraduna izango da. Bere funtzioa izango da txosten honetan adierazitako neurriak betetzen direla bermatzea. Hala eta guztiz ere, koordinazio taldeko partaide bat arduratuko da talde guztietan segurtasun neurriak betetzen direla ziurtatzeaz.

Arduratuko da:

- ✓ Partaideei tenperatura hartzeaz eta erregistratzeaz.
 - ✓ Maskarak banatzeaz halakorik ez duten parte-hartzaileei (beharrezkoa den kasuetan).
 - ✓ Urruntze sozialeko neurriak errespetatzeaz.
 - ✓ Pilaketak saihesteaz.
 - ✓ Ekintzan erabiltzen diren materialak egoki desinfektatzeaz.
 - ✓ Eskuak garbi mantentzen direla ziurtatuko du.
 - ✓ Osasun portaera eta taldeak kontrolatuko ditu.
- Hezitzaileei berariazko eta eguneratutako prestakuntza eman beharko zaie, COVID19ren aurkako prebentzioari eta babesari, ezartzen diren neurri eta protokolo espezifikoei, laneko arriskuen prebentzioari, gizarte-trebetasunak eskuratzeari, kudeaketa emozionalari eta ingurumen-hezkuntzari buruz, besteak beste. Prestakuntza hori, dagokien alor anitzetako udal teknikariek osatu eta emanen dute.

7. Parte-hartzaileen harrera eta itzulera.

- HH eta LH1eko haurren kasuan, begiraleak ziurtatu beharko du guraso, tutore, anai-arreba edo familiako kideren batekin joan dela haurra. Familiakoa ez den norbait bila etorri behar duen kasuetan, guraso edo tutoreak ardura parte bete beharko du lehenago.
- LH2tik (hau barne) aurrerako parte-hartzaileei goiza pasatik etxera bakarrik joaten utziko zaie (gurasoak edo tutoreak aurkakorik adierazi ezean).

8. Jarduera garatzeko baldintzak

8.1. Jardueren aurretiko informazioa eta komunikazioa

Erakundeak honako informazioa eman behar die gazteei edo legezko tutoreei jardueraren aurretik:

- Irurako Udalak eskuragarri izango ditu partaideentzat zein haien tutoreentzat, jarduera egiten den bitartean higie eta segurtasun arloan hartuko diren prebentzio neurriak.
- Jarduera COVID-19ra egokitzeko dokumentua.
- Kutsatuz gero edo kutsatzeko arriskua egonez gero, aurrea hartzeko eta jarduteko protokoloa .
- Parte hartzeko baldintzak onartzeko agiria, informatzeko betebeharra eta baimen informatua (gurasoek edota legezko tutoreek sinatu beharrekoa)
- Erakundeak garatutako eta parte-hartzaileei eta familiei zuzendutako informazio eta lege dokumentuek argiak izan beharko dute, eta erakundearen, familien eta parte-hartzaileen erantzukizunak, betekizunak eta jarduteko arauak identifikatu eta justifikatu beharko dituzte,

hurrenez- hurren. Besteak beste, erakundeak aurretiazko administrazio-izapideetarako eta jardueran zehar gerta daitezkeen gorabeheretarako dituen bitartekoak eta laguntza-pertsonak identifikatuko dira, bai eta parte-hartzaile bakoitzaren erreferentziazko hezitzaile edo hezitzaileak ere.

8.2. Jarduera egiten den bitartean:

- Begiraleak ezarri diren prebentzio-neurriak gogoratuko ditu, eta gainerakoen onerako eta segurtasunerako bete daitezela eskatuko du (gainazalak ez ukitzea, segurtasun-distantzia mantentzea, maskara erabiltzea, eskuak maiz garbitzea, etab.); eta instalazioak nola erabili ere adieraziko du (adibidez, komunak).
- Begiraleak taldeari jakinaraziko dio nola egingo den jarduera edo ibilbidea, bai eta aplikatzen diren arauak edota izan daitezkeen murrizketak ere.
- Arduradunek jardueraren segurtasuna zainduko dute. Horretarako, osasun adierazpena egingo dute instalazioetan sartzean, eta ezarritako segurtasun protokolo eta arau guztiak behar bezala betetzen direla bermatuko dute.
- Parte-hartzaileei dagokien taldearen berri emango zaie, eta hezitzailearekin bilduko dira jarduerari hasiera emateko talde bakoitzari izendatzen zaion tokian.
- Hezitzaileek ezarritako prebentzio-neurriak gogoratu behar dituzte eta besteen onerako eta segurtasunerako bete daitezela eskatu:
 - ✓ Gainazalak ez ukitzea
 - ✓ Segurtasun-tartea mantentzea
 - ✓ Maskara erabiltzea (beharrezkoa bada)
 - ✓ Eskuak maiz garbitzea
 - ✓ Aurpegia ez ukitzea (begiak, sudurra, ahoa)
 - ✓ Eztula egiteko paperezko zapia erabiltzea (hori ezean ukalondoa erabili) eta berehala bota errefusa ontzira.
 - ✓ Janaria ez partekatzea
 - ✓ Mugikorrek ez partekatzea
 - ✓ Instalazioak nola erabili (komunak etab.).
- Hezitzaile taldeak jakinarazi behar du nola egingo den jarduera edo ibilbidea eta zein arau eta/edo murrizketa aplikatuko diren.
- Saihestu egin behar dira kontaktu fisikoa eskatzen duten agur formak (besarkadak, muxuak, eskua ematea...)
- Hezitzaileek parte-hartzaileek babes neurriak betetzen dituztela bermatu beharko dute.
- Betetzen ez bada, diziplina neurrien proposamen argia garatuko da.
- Materiala ezin izango da parte-hartzaileen artean edo hezitzaileekin partekatu desinfektatu gabe.
- Jan-edatekoa bakoitzak berea eramanago du, baita ura ere. Hezitzaileek janaria edo edaria banatzen badute, bakoitzari dagokiona modu indibidualizatu eta higienikoan eskainiko dio, segurtasun neurriak betez. Eskularruak eta maskara jantzita prestatu eta banatuko da janaria.

8.3. Jardueraren ondoren

- Ingurumena zaintzearen kontzientzia sustatu nahian, etxez-etxe banatutako maskarak erabiltzea gomendatzen den arren, erabilpen bakarreko babes-materialak (maskarak) erabiliz gero, behar bezala bota behar dira errefusa ontzira.
- Jarduera osteko kudeaketetan kontaktu pertsonala murriztuko da, WhatsApp bidezko komunikazioa sustatuz (688 82 72 06).

9. Segurtasun eta higieneko oinarrizko ekipamenduak parte-hartzaile eta hezitzaileentzat

Entitateko arduradunek zerbitzuko jardunerako material higienikoak behar bezala hornituko direla bermatuko du, erabiltzaileek eta hezitzaileek erabiltzeko ireki baino lehen.

- ✓ Gel hidoralkoholikoak, xaboia, ura eta eskuak lehertzeko papera. Maiztasun handiz parte-hartzaileek eskuak garbitu beharko dituzte (sartu- irteeretan, jan aurretik eta ondoren, espazio amankomunak erabili baino lehen eta ondoren, beharrezkoa ikusten den jarduera aurretik eta ondoren,...)
- ✓ Maskarak (partaide bakoitzak bere maskara ekarri beharko du, beharrezko kasuetan hezitzaileak ahalbidetu dezake)
- ✓ Materialen desinfekzioarako esprai homologatuak
- ✓ Garbiketa produktu homologatuak
- ✓ Kartel eta informazioa leku egokian kokatua.

KUTSATZEKO EDO KUTSATZEKO ARRISKUA DAGOENEAN AURREA HARTZEKO ETA JARDUTEKO PROTOKOLOA

PREBENTZIO-NEURRIAK

1. Jarduerarako sarbidea kontrolatzeko neurriak: nork bere burua baztertzea eta sintomak aktiboki zaintzea parte-hartzaileen eta hezitzaileen artean.

- Parte-hartzaileak ez du joan behar eta ezin du jardueran parte hartu COVID-19rekin lotuta egon daitekeen edozein sintomatologia badu. (Begiratu Sintomak check zerrenda dokumentua, 1 eranskina).
- Partaideak edo hezitzaileak ezin du parte hartu ekintzetan Covid-19az kutsatutako norbaitekin harreman estua edo gertukoa izan badu.
- Partaideek edo hezitzaileek, ardura hau bereziki kontuan izan beharko dute, arrisku talderen bateko partaide badira edota zaugarria den pertsona batekin bizi badira: adinagatik, haurdun egoteagatik edo aurreko gaixotasun medikoak izateagatik (adibidez, hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako kronikoak, minbizia edo immunodepresioa).

2. Transmisioari aurrea hartzeko neurriak

- Parte-hartzaileek edo beren tutoreek beren egoera partikularraren ardura hartu beharko dute COVID-19 dagokionez, inork COVID-19 kodearekin lotutako sintomatologia badu.
- Hezitzaile guztien eta parte-hartzaileen artean higiene praktika osasungarriak erakustea, sustatzea eta indartzea.

- Hezitzaileek jardueraren segurtasuna zainduko dute, ezarritako segurtasun protokolo eta arau guztiak behar bezala betez.
- Garbitzeko eta desinfektatzeko lanak areagotuko dira, laneko higiearen eta osasunaren arloko agintari eskudunek emandako gomendioen arabera. Instalazioetan higie eta prebentzio neurriak ezarriko dira, parte-hartzaile orok jakin dezan. Señaleztapena funtsezko eremuetan jartzea, hala nola komunetan, jolas tokietan, etab.

COVID-19 BERRESTEN BADA JARDUTEKO MODUA

- **Segurtasun eta higie neurriak konpromezu pertsonala dira.** Jarduerak egin aurretik, familiei edo parte har dezaketenei emango zaien informazioan, gogoraraziko zaie beren osasun baldintzen eta higie eta prebentzio arauen errespetuaren erantzule direla, eta **ez dela inola ere sintomekin edo ondorez direla joan behar** jardueretara.
- **Parte-hartzailearen batek COVID-19 kasu susmagarriaren zantzuak baditu egin beharrekoa.** Identifikazioa, behaketa edo parte-hartzailearen beraren jakinarazpenen bidez egingo da. Parte-hartzaile batek COVID-19 ereduarekin bateragarriak diren sintomak baditu, familiari edo tutoreei jakinaraziko zaie, espazio bereizi batera eramango da eta maskara kirurgikoa jarriko zaio. Partaideari eta bere tutoreari gomendatuko zaie herriko osasun zentrorara deitzea (943 65 23 39). Herriko osasun zentroan egingo dira balorazio klinikoa eta proba diagnostikoen eskaera, Covid-19 berresteko eta beharrezkoa balitz, jakinarazteko, kasuaren segimendu klinikoa egiteko eta transmisioari lotutako harremanak aztertzeko (osasun zentroaren egitekoa da eta ez hezitzailearena). Langilea bada sintomak dituena, osasun zentrorara deituko du edo erreferentziatzko telefonora (osasun zentroa 943 65 23 39 / Aholku Sanitarioa 900 20 30 50) eta/edo Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuarekin harremanetan jarriko da eta haren jarraibideak jarraituko ditu.
- Haur bat ez bada zerbitzura azaltzen, hezitzaileak ez etortzearen zergatia zein den jakin behar du.
- Haur batek sintomak izanez gero, beharrezko azterketa edo balorazioa egin ostean, jasotzen dituzten datuak eta informazioa gurasoek edota tutore legalek koordinazio taldeari jakinaraziko diote (koordinatzaileekin harremanetarako mugikorra: 668 82 72 06).
- **COVID-19 kasua positiboki identifikatu ondoren jardutea.** Antolakuntzaren protokoloa jarriko da martxan eta osasun agintarien gomendioei jarraituko zaie uneoro.
- Hezitzaileek ez dute kutsatuak izandako harremanik aztertuko eta ez dagokie beraiei jarduera etetearen balorazioa egitea ere. Osasun agintariek eskatzen dieten lana errazten saiatuko dira eta beharrezkoa denean lagunduko dute.

1 ERANSKINA

Sintomak identifikatzeko check-zerrenda:

Azken 5 egunetan izan al du/duzu ondorengo ez ohiko sintomarik?

- Eztula
- Sukarra 37º baino altuagoa
- Aire faltaren sentrazioa edo arnas estutasuna
- Min muskularra edo articularra eta nekea
- Beherakoa edo botaka
- Azaleko erupzioak edo babak
- Usain edo dastamen galera

Covid-19arekin gertuko harremana/kontaktu itxia:

- Covid-19agatik positiboa eman duen pertsonaren batekin gertuko kontaktua izan du/dut azken 14 egunetan. (familia, laguna)
- Nire gertuko norbaitek izan du kontakturik Covid-19az kutsatutakoren batekin 15 minutu baino gehiagoz eta 2 metro baino gutxiagoko distantzian.

Horietakoren baten erantzuna baiezkoa bada, ezingo duzu ekintzan parte hartu eta ekintzaren arduradunari jakinaraziko diozu.

02 ERANSKINA. COVID-19AK KUTSATZEKO ARRISKUA EDO KUTSATZE POSITIBOA DAGOENEAN JARRAITZEKO PROTOKOLOA

Dokumentu honek jasotzen du Irurako Udalak 2020ko udan aisia hezitzaileko jardueretan COVID-19ak kutsatzeko arriskua edo kutsatze positiboa dagoenean jarraitzeko protokoloa. Dokumentuaren hartzaileak ekintza horietako parte-hartzaileak eta beren legezko tutoreak dira. Garatuko den jardueraren datuak honako hauek dira:

Lekua: Iruran

Data: ekainaren 29tik uztailaren 24ra

PREBENTZIO-NEURRIAK

AUTONOMIA-ERKIDEGOAN COVID-19AK KUTSATUTAKO KASUAK ZABALDUTA EZ DAUDENEAN HARTZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK

1. Jardueran parte hartzeko kontrol-neurriak

- Parte-hartzaileak ezin du jardueran parte hartu COVID-19arekin lotuta egon daitekeen edozein sintomatologia badu (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.).
- Parte-hartzaileak ezin du jardueran parte hartu baldin eta COVID-19ak kutsatutako pertsona batekin kontaktu estuan egon bada (bizikideak, senideak eta sintomak zituen kasu positibo batekin leku berean gutxienez 15 minutuz eta 2 metro baino gutxiagoko distantzian egon diren pertsonak) edo COVID-19ak kutsatutako pertsona batekin, sintomarik ez edukita ere, segurtasun distantzia gorde gabe leku berean egon bada, gutxienez 14 egunez. Epe horretan, segimendua egin behar du, gaixotasunaren zantzurik agertzen den jakiteko.
- Parte-hartzaileak, bere erantzukizunpean, jardueran parte har dezake, baldin eta kaltebera bada edo kaltebera den pertsona batekin bizi bada honako arrazoi hauengatik: adina, haurdun egotea edo lehenagoko afekzio medikoak izatea (adibidez, hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia edo immunodepresioa).

2. Kutsapenen prebentziorako neurriak

• Parte-hartzaileek eta beren legezko tutoreek beren gain hartuko dute COVID-19aren aurrean duten egoeraren erantzukizuna; hala, haietakoren batek COVID-19arekin lotutako sintomak baditu, ez da jarduerara joango eta arduradunarekin harremanetan jarriko da, hau da, udalekuetako zuzendariarekin, 688 82 72 06 mugikor-zenbakira deituz edo gazteria@irura.eus helbide elektronikora idatziz.

- Jarduera hasi aurretik, udalak informatzeko esku-orri digital bat banatuko du honako hauek zehaztuz:
 - Ezarritako segurtasun, portaera eta higieneko neurriak.
 - Erabiltzaileak instalazio barruan bete beharrekoak.

- Hartutako beste neurri batzuk.....
- Jardueraren hasieran parte-hartzaile bakoitzaren temperatura hartu eta erregistratuko da, arduradunek agindutako protokolo eta segurtasun-neurri guztiak betetzen direla ziurtatuko dute.
- Jarduera garatzen den bitartean, arduradunek:
 - Garbiketa eta desinfekzio sakonak gauzatzen direla ziurtatzearen ardura izango dute, laneko higie- eta osasun-gaietan eskumena duten agintarien gomendioei jarraituz.
 - Begiraleen eta parte-hartzaileen artean higie-praktika osasungarriak sustatu eta indartzeko lan egingo dute.
 - Higie- eta prebentzio-neurriekin seinaleztatuko dituzte instalazio guztiak, eta seinaleak jarriko dituzte funtsezko eremuetan, hala nola komunetan, korridoreetan eta gelen sarrerako ateetan.
- Jardueraren arduradunek bileren, ekitaldien eta talde-jardueren premiak eta arriskuak baloratuko dituzte, eta arriskua dakartenak bertan behera uztea aztertuko dute.
- Jardueraren arduradunek begiraleei eta parte-hartzaileei eskatuko diete, ondoeza edo gaixo egoteko sintomarik izanez gero, beren etxean geratzeko.
- Jardueraren arduradunek legez onartutako protokoloari jarraituko diote begirale edo parte-hartzaile bat edozein unetan gaixotzen bada, bai eta langileek nahiz parte-hartzaileek kutsatzea saihesteko jarraitu behar dituzten prebentzio-neurriak indartzeko protokoloari ere.

JARDUERAK EGITEN DIREN INSTALAZIOETAN COVID-19KO KASU BAIEZTATU BAT DAGOENEAN NOLA JARDUN: BERTAN BEHERA UTZI ETA ITZULTZEA.

- Konpromiso pertsonala segurtasun- eta higie-neurriekiko. Jarduerak egin aurretik, familiek edota parte-hartzaileek jarduera horietan izena emateko eman duten informazioan eta begiraleei eman zaien informazioan gogorarazi zaie beren osasun- egoeraren eta higie- eta prebentzio-arauak betetzearen erantzule direla, eta inola ere ez dutela joan behar jardueretara sintomekin edo ondoezarekin.
- Sarreran arriskua ebaluatzea. Arnas infekzioa, eztula, sukarra (+37^o), eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna edo usaimena galduta dituzten pertsona guztiak izan daitezke COVID- 19ko kasuak. Jarduerara sartzean, berehala identifikatuko dira, eta familiari/tutoreari (harremanetarako telefonoan) eta Irurako Osakidetzako osasun-zentroari jakinaraziko zaie¹; eta bertan esango digute zer egin. Identifikazioa egingo da tenperatura neurtzeko gailuen bidez, behatuz edo parte-hartzaileek egindako jakinarazpenen bitartez.

¹ [Herritarren arretarako telefonoak, autonomia-erkidegoka.](#)

- **COVID-19ko kasu bat izan daitekeena identifikatzea.** Behin elkargunean edota gelan (elkargunea) gaudela edota jarduera garatu bitartean sintomak agertuz gero, parte- hartzaileak jarduera hori eten beharko du, langileei eta begirale arduradunari jakinaraziz; eta aurretik ezarritako segurtasun- eta distantzia-neurriak zorrotz bete beharko ditu². Sintomak ezagutu ondoren, begiralea harremanetan jarriko da Irurako Osakidetzaren osasun-zentroarekin, egoeraren berri emateko eta jarraibideak jasotzeko, bai eta familiekin ere, egoeraren berri izan dezaten.
- Osasun-agintariei ohartaraztea eta analisiak egitea.
- **COVID-19ko kasu bat baieztatu ondoren nola jardun.** Erakundearen protokoloa martxan jarriko da, eta une oro Osakidetzaren gomendioei jarraituko zaie.
- Konfidentziasuna eta osasun-sistemara bideratzea. Infektatutako pertsonaren pribatutasuna eta konfidentziasuna zainduko dira, indarrean dauden eta lege-xedapenak errespetatuz, Irurako Udalak horretarako garatu duen protokoloaren arabera. Baldintza horietan, gaixoa osasun-sistemara bideratuko da.
- Harremanen arrastoa. Baieztatutako kasua detektatu eta berehala, begiraleek harremanen miaketa egingo dute, protokolo espezifiko eta aplikatu beharreko indarreko araudia errespetatuz. Eraitza Osakidetzako osasun-agintariei jakinaraziko zaie. Ondoren, eta horien zuzendaritzapean, arrisku orokorraren ebaluazio antolatua egingo da (parte- hartzaileen, begiraleen eta inplikaturako langileen artean sintomarik dagoen ala ez).
- Jarduera geldiaraztea eta familiei jakinaraztea. Jarduerak etengo dira protokoloa betez. Familiei eta tutoreei jakinaraziko zaie COVID-19ko kasu baieztatu bat dagoela. Gainerako parte-hartzaileei, begiraleei, inplikaturako langileei eta erakundeko arduradunei ere jakinarazi beharko zaie.
- **Jarduerak bertan behera uzteko erabakia hartzea.** Osasun-agintaritzaren jarraibideei jarraituz, jarduera bertan behera uzteko eta parte-hartzailearen gela aldi baterako ixteko agindu ahal izango da. Horretarako protokolo bat ezarriko da, agintaritzaren eskudunak onartua, erabaki horrek indarrean dagoen legeriaren barruan izango dituen ondorioak jasoko dituen.
- Parte-hartzaileak beren etxetara itzultzea koordinatuko da, eta beren erreferentziazko osasun-sistemara bideratuko dira, beharrezkoak diren osasun-jardueretarako.
- Gela epe laburrean itxiko da (2-5 egun), sakon garbitzeko/desinfektatzeko.
- Posible balitz eta egoera begirunez aztertu ondoren, jarduerari jarraipena emateko estrategiak ezartzeko lan egingo da, alternatibak ebaluatuz³.
- Parte hartzailearen batek positibo emango balu, parte hartzailea, dagokion taldea eta hezitzaileak etxean gelditu beharko dute, osasun sailak araututako neurriak betez.

² Higiene eta Segurtasun Pertsonaleko Protokoloan jasotako informaziora igortzen du, bai eta zentroek ezarritako Jardueren Protokolora ere

³ Online formatuko jarduerak egokitzea eta antolatzea ere eskaini daiteke.

